

## **2022. URTEAN PROIEKTU ARTISTIKOAK EKOITZI ETA MONTEHERMOSO KULTURUNEAN AURKEZTEKO DEIALDIA**

### **OINARRIAK**

Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak hainbat jarduera-ildo garatzen ditu sorkuntza artistiko garaikidea sustatu, bultzatu eta ezagutzera emateko asmoz.

Testuinguru horretan egiten du Montehermoso kulturuneak deialdi hau, sorkuntza artistikoaren garapena eta zabalkundea bultzatzeko asmoz.

Banaka nahiz taldean beren lanak aurkezteko aukera eman nahi zaie nagusiki artista lokalei, arte eta kultura garaikidea sustatu eta herritarrengana hurbiltzen duten ekintzen bitartez.

### **OINARRIAK**

#### **Lehena: Deialdiaren xedea**

2022-2023 aldian Montehermoso kulturunean aurkeztuko diren sorkuntza artistikoaren alorreko gehienez LAU proiektu hautatzea du xede Hezkuntza eta Kultura Sailaren deialdi honek.

Hautatzen diren proiektuak kontratatu egingo ditu Gasteizko Udalak, Montehermoso kulturunearen 2022 eta 2023ko aurrekontuko 231205.3332.22622 partidaren kontura.

#### **Bigarrena: Eskatzaileen betebeharrak**

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez duten artistek, organizazioek nahiz elkarteek aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak.

Proiektu artistikoek argitaratu gabeak izan beharko dute, eta adierazitako epeetan aurkeztu beharko dira.

#### **Hirugarrena: Laguntza emateko prozedura**

Garatuko den proiektua hautatzeko, alderatu egingo dira aurkeztutako proposamenak, balioespen-irizpide hauek aintzat hartuta:

<b>IRIZPIDEAK</b>	<b>PUNTUAK</b>
Proiektuaren interesa eta kalitatea	<b>10</b>
Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako dosierraren eta dokumentazio osagarriaren argitara: helburuak, gauzatzeko denbora eta baliabideak	<b>5</b>
Proiektua aurkezten duen egilearen edo taldearen prestakuntza eta ibilbide profesionala	<b>5</b>
<b>PUNTUAK, GUZTIRA</b>	<b>20</b>

Ahal den guztietan, laguntzetako bat, gutxienez, Gasteizko udalerrian jaiotako edo bizi den norbaitentzat izango da. Hiru ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokitzuz gero, Gasteizko udalerrian jaiotakoek edota bertan bizi direnek izango dute lehentasuna.

Hautaketa-batzordeak eskatzaileak elkarrizketatu ahal izango ditu, edo haiei buruzko informazio osagarria eskatu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko.

Proiektuetako batek ere ez badu puntuaren % 50 lortzen, deialdia esleitu gabe utzi ahal izango du hautaketa-batzordeak —zati bat edo osorik—.

### **Laugarrena: Proiektuak hautatzeko batzordea**

Hauek osatuko dute hautaketa-batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzia edo hark ordezkotzen duena.

Kideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako bi aditu, kulturuneak hautatuak.

Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat, ahotsa bai baina botorik gabe.

Eskatzaile guztiei telematikoki jakinaraziko zaizkie ebazpenak.

### **Bosgarrena: Zenbatekoa eta ordainketa**

Deialdi honetara bideratutako gehieneko aurrekontua 24.000,00 eurokoa izango da 21.600,00 euro 2021eko ekitaldiko 231205.3332.22622 partidaren kontura izango dira, eta gainerakoa —2.400,00 euro— 2023ko ekitaldiko partida beraren kontura.

Proiektu bakoitzeko gehieneko diru-kopurua 6.000 eurokoa izango da. Zuzkidura horren barruan sartuko dira ordainsariak, komisarioaren testuak

(halakorik balego), baita proiektua ekoitzi, garraiatu eta Montehermoso kulturunean erakusgai jarri eta zabalkundea ematetik sortzen diren gastuak ere.

Montehermoso kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak gehituko zaizkie partida horiei.

Hala ere, hautatutako pertsonak edo erakundeak zentroari atxikita ez dauden giza baliabideak eta/edo ekipo teknikoak erabiltzen baditu, zuzkidura ekonomiko gisa balioetsi eta kontabilizatuko da, proiektu bakoitzerako laguntzari dagozkion 6.000 euroko kopuruaren barruan.

Montehermoso kulturuneak, gainera, hautatutako lau proiektuen erakusketaren katalogo estandar bat argitaratuko du, eta bere gain hartuko du identifikazio-binilo bat egin eta erakusketaren sarreran jartzeko ardura.

Kontratazio-dosier bana tramitatuko da pertsona edo entitate hautatu bakoitzeko, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren ildotik.

Adierazitako diru-kopuruak barne hartuko ditu zergak, behar izanez gero egingo den PFEZaren atxikipena gorabehera. Honela ordainduko da diru-kopuru hori:

- % 90 kontratua izenpetzen denean,
- Gainerako % 10, 2023an.

Batean nahiz bestean, faktura aurkeztu beharko da. Pertsona edo entitate eskatzaileak ezingo du izan inolako zorrik Udalarekin.

Ofizios eskatuko du horren gaineko ziurtagiria Kultura Zerbitzuak. Zorrik izanez gero, hala jakinaraziko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta ez da faktura ordainduko harik eta egoera konpondu arte.

## **Seigarrena: Aurkeztu beharreko agiriak**

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, behar bezala beteta.
- Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu dituela eta sektore publikoarekin kontratatzeke debekuaren mende ez dagoela.
- Proiektuaren titular den pertsona edo entitatearen nortasun-agiriaren edo baliokidearen fotokopia.
- Proiektuaren titular den pertsona edo entitatearen ibilbidea edo curriculum.

- Beste batzuekin batera aurkeztuz gero, entitatearen nahiz haren ordezkariaren ibilbide edo curriculumaz eta datuez gain, harekin batera parte hartzen duten agenteen gaineko informazio osoa ere aurkeztu beharko da.
- Proiektuaren dosierra, hauek biltzen dituenak:
  - Proiektuaren izenburua eta garapena.
  - Behar teknikoak.
  - Gauzatzeko egutegia.
  - Gutxi gorabeherako aurrekontu xehatua, finantzaketa propioa izan lezaketen kontzeptuak zehazten direlarik.

Eskabideari ez bazaizkio eransten atal honetan adierazitako agiriak, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari egoera hori konpon dezan. Hala egin ezean, bertan behera utzitzat joko da eskabidea.

### **Zazpigarrena: Eskabideak aurkezteko epea.**

**2022ko maiatzaren 4ra artekoa** izango da proiektuak aurkezteko epea. Gasteizko Udalaren webgunean eskuragarri dagoen eredia baliatuz aurkeztu beharko da eskabidea.

### **Eskabideak aurkeztea:**

- Aurrez aurre  
Herritarrei laguntzeko bulegoetan.
- Online,  
Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

### **Zortzigarrena: Deialdia ebaztea**

Hautaketa-batzordeak deialdi honetako 3. puntuan zehaztu diren irizpideak aintzat harturik aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztu diren eskabideak eta agiriak. Idatziz jakinaraziko zaie hautatuak izan diren ala ez deialdira aurkeztu diren pertsona edo erakunde guztiei.

### **Bederatzigarrena: Jarraipen-batzordea**

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta hura arduratuko da proiektua behar bezala garatzen den ebaluatzeaz.

Batzorde horrek behar adina bilera eskatu ahal izango ditu, kontratuan jasotzen diren zehaztapen eta betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Halaber, batzorde horri dagokio kontratua gauzatzeko orduan planteatzen diren egokitzapenak eta aldaketa-proposamenak baimentzea, eta proiektuaren kanpo-komunikazioa gainbegiratzea.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, laguntza kendu ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.

### **Hamargarrena: Onuradunaren betebeharrak.**

Deialdi honetan hautatzen den proiektuaren titular den pertsona edo entitateak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a\_ Hautaketa-batzordearen erabakia onartzekoa.
- b\_ Proiektua deialdian zehazten den epean eta aurreikusten diren baldintzetan gauzatzekoa.
- c\_ Gehienez hamar eguneko epean, onartzen duela idatziz berrestekoa. Hala berretsi ondoren, Montehermoso kulturunea harremanetan jarriko da hautatuetako bakoitzarekin, kontratua sinatu eta hori gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.
- d\_ Aurkeztutako projektuan aldaketarik bada, horren berri idatziz ematea.
- e\_ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatekoa.
- f\_ Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkioten arauak betetzekoa.
- g\_ Proiektua adostutako epean eta baldintzetan gauzatzekoa —bestela, uko egin beharko dio laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badu, itzuli—.
- h\_ Obra, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakusten den arte.
- i\_ Erakusketa muntatzeko hitzartutako egunetan Montehermoso kulturunera joatekoa.
- j\_ Proiektua aurkezteko prentsaurrekoan eta erakusketaren inaugurazioan parte hartzekoa.

- k\_** Proiektuaren komunikazio egokirako beharrezko egokitzen diren informazioa eta dokumentazioa ematekoa, eta, behar izanez gero, proiektuan ekoizten diren irudiak jendaurrean erreproduzitu eta erakusteko eskubidea Gasteizko Udalari lagatzekoa. Ildo horretatik, Gasteizko Udalak proiektuaren erakusketa Montehermoso kulturunean dagoeneko erreportaje fotografiko edo bideografikoa egin ahal izango du, zeinaren helburu bakarrak dokumentazioa, komunikazioa eta katalogoa egitea izango baitira.
- l\_** Bere izen-abizenak komunikabideetan zein Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen webguneetan eta sare sozialetan argitaratzeko baimena ematekoa.
- m\_** Proiektuaren publizitatean —Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere— Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzekoa.
- n\_** Programa bukatu ondoren, bi hilabeteko epean, egindako lanaren oroitidazkia aurkeztekoa —edukiak kontratuan zehaztuko dira—.

### **Hamaikagarrena: Dokumentazioa itzultzea.**

Hautatu gabeko proiektuak itzuli egingo dira proiektuaren titularrak hala eskatuz gero, erabakiaren berri jakinarazi ondorengo 30 egun naturaletan. Denbora hori igarotzen delarik, gainerako proiektuak txikitu egingo dira.

### **Hamabigarrena: Oinarriak interpretatu eta onartzea.**

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak ebatziko ditu.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da horiek bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

### **Argibideak:**

Montehermoso kulturunea.  
Frai Zacarias Martinez kalea, 2  
01001 Vitoria-Gasteiz  
+34 945 161 830  
administracion@montehermoso.net  
www.montehermoso.net

## **CONVOCATORIA PARA LA PRODUCCIÓN Y PRESENTACIÓN DE PROYECTOS ARTÍSTICOS 2022 EN EL CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO KULTURUNEA**

### **FUNDAMENTACIÓN**

El Departamento de Educación y Cultura del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, desarrolla diversas líneas de actuación con el fin de fomentar, promocionar y difundir la creación artística contemporánea.

En este contexto, el Centro Cultural Montehermoso realiza la siguiente convocatoria con el objeto de apoyar y fortalecer su desarrollo y posterior difusión.

Se desea ofrecer a los/las artistas preferentemente del contexto local la posibilidad de presentar su trabajo, individual o colectivamente, a través de acciones que potencien el arte y la cultura contemporánea y su acercamiento a la ciudadanía.

### **BASES**

#### **Primera: Objeto de la convocatoria**

El Departamento de Educación y Cultura realiza esta convocatoria cuyo objeto es la selección de un máximo de CUATRO proyectos de creación artística, para su presentación en el Centro Cultural Montehermoso en el periodo 2022-2023.

Los proyectos seleccionados serán contratados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz con cargo a la partida 231205.3332.22622 del presupuesto para 2022 y 2023 del Centro Cultural Montehermoso.

#### **Segunda: Requisitos de las/los solicitantes**

Podrán presentar proyectos artistas, organizaciones y/o asociaciones que tengan plena capacidad de obrar y no estén incursas en prohibición de contratar con el sector público.

Los proyectos artísticos seleccionados deberán ser inéditos y presentarse dentro de los plazos marcados.

### **Tercera: Procedimiento de concesión**

La selección del proyecto a desarrollar, se realizará mediante la comparación de las propuestas presentadas en función de los siguientes criterios de valoración:

<b>CRITERIO</b>	<b>PUNTOS</b>
El interés y calidad del proyecto	<b>10</b>
Coherencia y viabilidad del proyecto según el dossier y la documentación complementaria presentada, con los objetivos planteados, el tiempo de ejecución y los recursos	<b>5</b>
Trayectoria formativa y profesional del autor/a o colectivo que presenta el proyecto.	<b>5</b>
<b>TOTAL PUNTOS</b>	<b>20</b>

Siempre que sea posible, al menos una de las ayudas se destinará a personas nacidas y/o residentes en el término municipal de Vitoria-Gasteiz. Asimismo, ante igualdad de puntuación en los tres apartados anteriores se dará prioridad en la concesión a las personas nacidas y/o residentes en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

El comité de selección podrá entrevistarse con los solicitantes o recabar información complementaria de los mismos, con el fin de poder evaluar mejor las propuestas presentadas.

En caso de que ninguno de los proyectos alcance un mínimo del 50 % del total de puntos a adjudicar, el comité de selección podrá dejar la convocatoria desierta parcial o totalmente.

### **Cuarta: Comisión de selección de proyectos**

El Comité de Selección estará compuesto por:

Presidencia: Concejala del Departamento de Educación y Cultura o persona en quien delegue.

Vocalía: Dos personas expertas en las áreas sujeto de la convocatoria, designadas por el Centro.

Secretaría: Actuará como tal un miembro del equipo del Centro Cultural Montehermoso, con voz, pero sin voto.

Las resoluciones serán notificadas telemáticamente a todos los participantes.



### **Quinta: Importe y abono**

El presupuesto máximo a abonar es de 24.000,00 euros de los cuales 21.600,00 serán con cargo a la partida 231205.3332.22622 del ejercicio 2022 y el resto, 2.400,00 euros con cargo a la misma partida del ejercicio 2023.

La cuantía máxima destinada a cada uno de los proyectos asciende a 6.000 €. En esta dotación se incluyen los honorarios, textos curatoriales en su caso, así como los gastos derivados de la producción, transporte y posterior presentación y difusión del proyecto en el Centro Cultural Montehermoso.

A estas partidas se sumarán las infraestructuras, equipos técnicos, asesoramiento y recursos humanos del Centro Cultural Montehermoso.

Sin embargo, la utilización por parte de la persona o entidad seleccionada de recursos humanos y/o equipos técnicos no adscritos al Centro, se entenderá valorada y contabilizada como dotación económica dentro de los 6.000 € correspondientes a la ayuda para cada proyecto.

El Centro Cultural Montehermoso editará además un catálogo estándar de la exposición de los 4 proyectos seleccionados y se hará cargo de la elaboración y colocación de un vinilo identificativo en la entrada a la exposición.

Se realizará un contrato con cada una de las personas o entidades seleccionadas de acuerdo a lo establecido en la legislación vigente.

La cantidad mencionada se considera con impuestos incluidos, y todo ello sin perjuicio de la retención de IRPF que se efectuará si procede. El ingreso de esta cantidad se realizará de la siguiente forma:

- un 90% a la firma del contrato,
- el 10% restante, en 2023.

En ambos casos deberá presentarse la factura correspondiente. La persona o entidad solicitante deberá de estar al corriente de los pagos con el Ayuntamiento.

El Servicio de Cultura solicitará este certificado de oficio. En el caso de no estar al corriente, se le comunicará a la persona o entidad solicitante y no se abonará factura alguna hasta que no se subsane dicha situación.

### **Sexta: Documentación requerida**

Se deberá aportar la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud cumplimentado.

- Declaración responsable de hallarse al corriente de obligaciones tributarias y seguridad social y no estar incurso en prohibición de contratar con el sector público.
- Fotocopia del DNI (o documento equivalente) de la persona o entidad titular del proyecto.
- Trayectoria/currículum de la persona o entidad titular del proyecto.
- En el caso de presentación conjunta además de los datos y trayectoria/currículum de la entidad y/o persona que actúe en representación, información completa de los agentes coparticipantes.
- Dossier del proyecto a realizar que incluya:
  - Título y desarrollo del proyecto
  - Necesidades técnicas
  - Calendario de ejecución
  - Presupuesto estimativo y desglosado, detallando los conceptos que eventualmente pudieran contar con financiación propia.

Las solicitudes que no incluyan la documentación detallada en este apartado serán requeridas para completarla y dispondrán de un plazo de diez días para subsanar esta situación. De no producirse tal subsanación, se le tendrá por desistido de su solicitud.

### **Séptima: Plazo y presentación de solicitudes.**

El plazo de presentación de proyectos será **hasta el día 4 de mayo de 2022**. La solicitud deberá presentarse según el modelo disponible en la página web del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

#### **Presentación de solicitudes:**

- Presencial  
En las Oficinas de Atención Ciudadana.
- Online  
A través de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

### **Octava: Resolución de la convocatoria**

El Comité de Selección examinará y evaluará las solicitudes y la documentación presentada de acuerdo a los criterios que se establecen en el punto 3 de la presente convocatoria y emitirá el resultado. Se comunicará

telemáticamente si han sido seleccionadas o no a todas las personas o entidades que se hayan presentado a la convocatoria.

### **Novena: Comisión de seguimiento**

Para realizar un correcto seguimiento del proyecto, se constituirá una comisión de seguimiento encargada de evaluar su correcto desarrollo, la cual emitirá un acta de cada reunión.

Esta Comisión podrá requerir cuantas reuniones sean necesarias para garantizar el correcto cumplimiento de las estipulaciones y obligaciones reflejadas en el contrato.

Corresponde a esta comisión, igualmente, autorizar cuantos ajustes y/o propuestas de modificación sean planteadas con respecto a la ejecución del contrato y la revisión de la comunicación externa del proyecto.

Si se estimase que el trabajo no se lleva a cabo en los términos y plazos previstos en la convocatoria, la ayuda podría ser retirada automáticamente previo informe presentado por la comisión.

### **Décima: Obligaciones de la persona y/o colectivo beneficiario.**

La persona o entidad titular del proyecto seleccionado en esta convocatoria se compromete a:

- a\_ La aceptación de la resolución de la comisión de selección.
- b\_ Desarrollar el proyecto en el plazo y condiciones previstas en la convocatoria.
- c\_ Ratificar por escrito su aceptación en un plazo máximo de diez días. Una vez ratificada, el Centro Cultural Montehermoso se pondrá en contacto con cada seleccionado/da y se procederá a la firma de un contrato estableciendo las cláusulas específicas para su realización.
- d\_ Notificar por escrito cualquier modificación en el proyecto presentado.
- e\_ Ostentar los derechos de propiedad intelectual del proyecto presentado.
- f\_ Cumplir las normas que desde el Centro Cultural Montehermoso se les indique para el uso de espacios e infraestructuras cedidas.
- g\_ Desarrollar su proyecto en el plazo y condiciones acordadas y, de no ser así, deberán renunciar a la ayuda y devolver la cantidad recibida si hubiera sido abonada.

- h\_ No presentar ni parcial ni totalmente la obra en público hasta su exhibición acorde con las indicaciones marcadas por el Centro Cultural Montehermoso.
- i\_ Acudir el Centro Cultural Montehermoso los días convenidos para el montaje de la exposición.
- j\_ Asistir a la rueda de prensa de presentación de su proyecto y a la inauguración de la exposición del mismo.
- k\_ Facilitar toda la información y documentación necesaria para la correcta comunicación de los proyectos, cediendo, si fuera necesario, al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el derecho de reproducción y de comunicación pública de las imágenes producidas en el proyecto. En este sentido el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz podrá realizar un reportaje fotográfico o videográfico de la exposición del proyecto en el Centro Cultural Montehermoso cuyos fines serán exclusivamente su documentación, su comunicación, y la realización del catálogo.
- l\_ Consentir la publicación de su nombre y apellidos tanto en los medios de comunicación como en la web y redes sociales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y del Centro Cultural Montehermoso.
- m\_ Incluir en toda la publicidad que se realice del proyecto -ya sea en el Centro Cultural Montehermoso o en otro espacio- los logotipos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y del Centro Cultural Montehermoso.
- n\_ Tras finalizar el programa, en el plazo de 2 meses, deberá presentar una memoria del trabajo realizado cuyos contenidos serán definidos en el contrato.

### **Undécima: Devolución de la documentación**

Se procederá a la devolución de los proyectos no seleccionados, previa solicitud del titular del proyecto, durante los TREINTA DÍAS naturales posteriores a la comunicación del fallo. Transcurrido ese periodo de tiempo, se procederá a la destrucción de los mismos.

### **Duodécima: Interpretación y aceptación de las bases.**

Cualquier duda que pueda surgir en relación a la interpretación de estas bases será resuelta por el Departamento de Educación y Cultura del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

La participación en la presente convocatoria supone la aceptación plena de las bases que la regulan. El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes bases o en la concesión de ayudas supone la suspensión inmediata de la misma, con independencia de la responsabilidad a que pudiera dar lugar.

### **Más Información:**

Centro Cultural Montehermoso  
Fray Zacarías Martínez, 2  
01001 Vitoria-Gasteiz  
+34 945 161 830  
administracion@montehermoso.net  
www.montehermoso.net